



ABANDOKO
SAN BIZENTE MARTIRIAREN
PARROKIA

PARROQUIA
DE SAN VICENTE MÁRTIR
DE ABANDO

Done Bikendi plaza 3. 48001 Bilbao (Bizkaia)
T. 94 423 12 96
parroquia@sanvicentemartirdeabando.org

EBANJELIOA: BEHAR DUGUN BERRIA

“Gure kontra ez dagoena, gure alde dago”

2021eko irailaren 26a
Urteko 26. igandea (B)

Markos 9, 38-43. 45. 47-48.

Joanek esan zion: -Maisu, gizon bat ikusi dugu zure izenean deabruak botatzen, eta eragotzi egin nahi izan diogu, ez baita gure taldekoa.

Baina Jesusek erantzun: -Ez eragotzi; ez baita inor, nire izenean mirari bat egin eta gero nitaz gaizki-esaka jardungo duenik. Hau da, gure kontra ez dagoena, gure alde dago. Benetan diotsuet: Mesiasen jarraitzaile zaretelako, ontzixka bat ur bada ere ematen dizuen inor ez da saririk gabe geldituko.

“Sinesten duten txiki hauekoren baten sinesmena galbidean jartzen duenak, hobe luke errotarri bat lepotik lotu eta itsasora amilduko balute. Zeure eskuak galbidean jartzen bazaitu, moztu; hobe duzu eskumotz betiko bizitzan sartu, bi eskuekin infernura, itzalezineko sutara, erori baino.

Zeure oinak galbidean jartzen bazaitu, moztu; hobe duzu hankamotz betiko bizitzan sartu, bi oinekin infernura jaurtikia izan baino.

Zeure begiak galbidean jartzen bazaitu, atera; hobe duzu begibakar Jainkoaren erreinuan sartu, bi begiekin infernura jaurtikia izan baino; han ez da barruko harra hiltzen, ez eta sua itzaltzen.

“Ez eragotzi; ez baita inor, nire izenean mirari bat egin eta gero nitaz gaizki-esaka jardungo duenik.
Hau da, gure kontra ez dagoena, gure alde dago.”

ADISKIDEAK DIRA, ETA EZ ETSIAK

Jose Antonio Pagola

Bera bezala, Jainkoaren erreinuaren zerbitzuan, jendearen bizitza gizatarago, duinago eta zorientsuago eginez, bizi daitezen Jesus asko saiatu den arren, ikasleak ez dira jabetu Jesusi zein Espirituk eragiten dion ikustera; ez dira iritsi konturatzera premiarik handiena dutenekiko Jesusek duen maitasunaz eta haren bizitza gidatzen duen norabide sakonaz.

Markosen kontakizuna oso argitzailea da. Oso gogaikarri gertatu zaien gertakizun baten berri eman diote ikasleek Jesusi. Ezezagun bat ikusi dute «*deabruak botatzen*». Eta «*Jesusen izenean*» dihardu, eta Jesusen ari berean: jendea liberatzen ari da modu gizatarrean eta bakean bizitzea eragozten dien gaitzetik. Baina ikasleek ez dute gustukoa haren eginkizun liberatzaile hori. Ez zaie axola gizon hark sendatzen duen jendearen poza. Uste dute, ezen jokabide hori eltze askotan burruntzalia sartu nahi izatea dela, eta errotik atera beharrekoa.

Jesusi agertu diote beren erreakzioa: «*Eragotzi egin nahi izan diogu, zeren ez baita gutakoa*». Arrotz hari ez zaio zilegi sendatzen jarraitzea, ez baita gure taldekoa. Bost axola zaie ikasleei jendearen osasuna, baizik taldearen izena dute gogoan. Monopolizatu egin nahi dute Jesusen egintza salbatzailea: inork ez du sendatu behar haren izenean, baldin eta taldeari atxikitzen ez bazaio.

Jesusek, ordea, gaitzetsi egin du ikasleen jarrera eta jarrera guztiz desberdinari lotu zaio. Beste era batean dakusa Jesusek arazoa. Lehenengo gauza eta garrantzikoena ez da talde txikia hazten joatea, baizik Jainkoaren salbazioa gizaki ororengana iristea, nahiz taldekide ez den jendearen bitartez izan: «*gure aurka ez dena, gure alde da*». Jesusen indar sendatzailea eta askatzailea munduan presente egiten ari den oro Jesusen taldearen alde ari da.

Jesusek uko egin dio ikasleen jarrera sektario eta baztertzaleari, beren izena eta handitzea soilik baitituzte gogoan, eta jarrera irekia eta barne-hartzailea hartu du, zeinen arabera lehenengo gauza gizakia askatzea baita, suntsitzaile eta zorionaren kontrako den orotatik askatzea. Horrek izan behar du beti Jesusen zinezko jarraitzaile guztiei eragin behar dien Espiritua.

Eliza katolikotik kanpo, kontaezin ahalako gizon-emakumeen multzoa ari da on egiten eta lanean gizartea duinago egiteko, zuzenago eta askeago egiteko. Halakoengan bizirik da Jesusen Espiritua. Adiskidetzat eta aliatutzat hartu behar ditugu halakoak, eta ez etsaitzat, inoiz ere. Ez dihardute gure aurka, zeren gizakiaren alde ari baitira, Jesus bezala.